

IRABAZI ITURRIAK

Gure enpresari dagokionez, gure produktuarekin lortutako di, ordainketa errepikarien bidezkoak izango dira. Hau da, bezeroak, gure kasuan udaletxeek, modu jarraian egingo dituzte ordainketak, alokairu moduan. Udaletxeak gure zaborrontziak herrian jarri nahi baditu, denbora minimo baterako akordioa egingo genuke hauekin, urte betekoa zehazki. Beraz, hasieran kapital bat jarriko lukete gure zaborrontziak urte betez bertan egoteko. Hortik aurrera, udaletxeari zaborrontzien proiektua ondo doala iruditzen bazaio, akordioa luzatuko genuke eta alokairu moduan jokatuko genuke beraiekin. Hala eta guztiz ere, alokailuarekin jarraitu nahi ezean, erosteko aukera izango lukete.

Irabazi iturri horiek lor ditzagun, hainbat metodo ezberdin erabiliko ditugu. Gure proiektuaren funtsa, mailegua izango da, hau da, hasiera batean, gure zakarrontziak urte beterako alokairuan emango ditugu, hots, bezeroek, zakarrontziak aldi batean edukitzeko eskubidea lortuko lukete: Lehenengo urteko alokairuarentzat, bezeroak zakarrontzi bakoitzarengatik 2500€ prezioa ordaindu beharko du. Ordainketa horrek, bere barne izango luke zakarrontzia herrian urte baterako izateko eskubidea eta aplikazioaren pertsonalizazioa herriarentzat. Behin, urte hori pasa ondoren, zakarrontziak dituzten erosleekin hitz egingo genuke, kontratu berria hitzartzeko edo kontratuari amaiera emateko. Hitzarmenarekin jarraitu nahi izango balukete, prezioa berriz adostu beharko genuke (kalkulatu dugu, gutxi-gora-behera 1300€ / urtekoa izango dela hurrengo bi urtetarako prezioa). Behin, bi urte horiek igaro ondoren, bezeroari bi aukera sortzen zaizkio: alokairuarekin jarraitu 400€ / urteko prezioan edo 1000€ ordainduta, zakarrontzia erosi. Azkeneko aukera horretan, aplikazioaren mantenua 7 urtetarako sartuko litzateke.

Aurreko prozesu horretan, erosleek edozein unetan zakarrontziak kentzeko aukera izango dute. Gainera, prezio guztietan, zakarrontziaren mantenua eta aplikazioaren

personalizazioa ere bermatua izango lukete. (*erosketaren ondoren, 7 urteko mantenua bermatua izango dute).

Azkenik, zakarrontzien atzekaldeetan publizitatea jartzeko ideia daukagu. Honela, publizitate hori bertan jarriaz, diru-sarrerak lortzen ditugu markek edo enpresek ordainduko liguketelako beraien produktua iragartzearen truke. Publizitate hitzarmenak hilabeteko epea izango dute. Hala eta guztiz ere, publizitate hori udaletxearekin adostuta egongo litzake, arazorik egon ez dadin.

Beraz, finantzazioa egin ondoren, aurreikusi dugu zakarrontzien prezioa, eta prezio hori aldatuko ez dugunez, gure produktuaren prezioa finkoa dela esan dezakegu. Honek esan nahi du, gure bezeroek prezio jakin eta ez aldakor batean erosiko edo alokatuko dituztela gure zakarrontzi inteligenteak.

Anje Irastorza, Irati Zarranz, Julen Garmendia, Xabier Urigoitia eta Irati Salgado